

# Abarak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

## Euskaldun izatea zein nekeza den

EUSKALDUN IZATEA zein nekeza den kantatzen du Ruperrek eta berresten du Nagore Aranburuk, *Bodologuak* saioan taularitzen dituen bi bakarrizketetatik batean. Egoitz Lasa, Mikel Pagadizabal eta hirurak herriz herri dabilta ordubete inguruko saioa eskainiz, boda batetik itzultzen direla aitzakia hartuta txandaka bakarrizketan. “Euskal” izatearen zamaz dihardu Aranburuk, ikastolen jaiak, txosna-lana, Euskal Herriari buruz *giri* eman beharreko azalpenak edota kirolarekiko obsesioa argudio. Eta publikoko asko identifikatuta sentitu gara, islatuta ikusi dugu gure burua. Topiko eta estereotipoetatik abiatuta, eta umoreak behar duen exagerazio ukituz jantzita, egiak azaleratzen dituztelako hiru umoristek, bizi garen gizarte ereduari (kontsumismoari, soziedade gastronomikoen kulturari, estetikaren morrontzari...) eztenkadak sartuz.

Dena den, esango nuke “euskal” etiketari ihes egin eta unibertsal izatea lortu duela ikuskizunak. Bai, hemengo erreferentzia kulturalak eta bizipenak aipatzen dira maiz, eta euskaldunok baino ulertu ezin ditugun pasarteak daude, baina kostunbrismotik harago, leku guztietan berdina da umorea, txarra batzuetan eta ona besteetan, txarra batzuentzat eta ona besteentzat. Edukian eta gidoian asmatzen jakin



behar, gaiari mamia ateratzen, umore argi eta kritikoa egiten. Zentzu horretan, bakarrizketa guztiek ez naute berdin erakarrri eta pertsonalki, Pagadik Elizari –eta mezatako buruhausteei– buruz botatakoak eta Aranburuk euskal izaeraz kontatutakoak gustatu zaizkit gehien.

Umorea unibertsala da, diogu, inportagarri eta esportagarri. Zein ereduri begiratzen zaion, hori ere garrantzitsua da. *Ai ama!* telebista saioaren harira, euskaldunok dibertimenduan hasiberriak garela eta Espainiako ereduak baino, esaterako Frantziakoak hartzea gomendatzen zuen Aritz Galarragak *Berriako* Ekografiak sailean –*Le Petit*

*Journal* aipatzen zuen adibide gisa–. Izan ere, ba al da eredu traketsen kopia traketsa baino gauza traketsagorik?

Ez da hau kasua. Egunerokoari beren ikuspuntutik erreparatu diote bodologulariek, eta antzeppen txukuna taularatu dute, bakoitzak bere estiloan. Ez gaude ohituta bakarrizketak euskaraz entzutea, eta trataera egokiena eman diote hizkuntzari: kaleko euskara bizia eta jatorra, nola bestela, freskoa eta naturala, hitz-joko eta esamoldeak lagun. Garai hauetarako, finean, ihesbide aproposa da *Bodologuak*, arratsalde batez penak alboratzeko.



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia